

Beste bultzada bat hurbileko produktuei**EROSKI-K BERE KONPROMISOA INDARTU DU NAFARROAKO TOKIKO EKOIZPENAREN ALDE EGINDA, ETA %14 IGO DITU SALMENTAK 2020KO LEHEN ERDIAN**

- Nabarmenezkoak dira freskoen salmentetako %14tik gorako igoera, Nafarroako fruta eta berduren salmentei esker, eta harategiaren eta urdaitegiaren atalek izan dutena, %13tik gora igo baita horietan.
- EROSKI 400 euskal hornitzaile ingururekin aritzen da lanean, eta 220 milioi euro baino gehiagoren erosketak egiten dizkie urtero

Iruñea, 2020ko irailaren 14a.- [EROSKI](#)k konpromiso indartsua du bere inguruneko ekoizpenarekin, eta horren erakusgarri da nolako bultzada ari den ematen hurbileko produktuei bere sare komertzialean. Nafarroako tokian tokiko elikagaiei dagokienez, EROSKIren salmentek goraka jarraitzen dute, %14 handitu baitira urte honetako lehen seihilekoan.

Tokian tokiko freskoak hazkuntzaren buruan

Tokio freskoen salmenta %14,3 igo da. Hazkuntza horren buruan daude urdaitegiko eta harategiko ataletako produktuak —bereziki Nafarroako Txahalaren AGB ziurtagiria duen haragia, *EROSKI Natur* marka propioarekin saltzen dena, AGB duen bildotsa eta EROSKI Natur oilaskoa, Reyno Gourmet zigilua duena—. Hurrenez hurren, %17,6ko eta %15,5eko igoerekin. Eskualdeko fruten eta barazkien salmentak ere igo egin dira, %13tik gora aurreko urteko epe berarekin alderatuta.

"Tokiko produktuen eta sasoiaren sasoiaren eskaintza zabala gure denden bereizgarri bihurtu da. Tokian tokiko produktuekin dugun konpromisoa igotzen ari da urtez urte, eta gaur egun, COVID-19aren egoera zaila dela medio, lehentasuna ematen ari gara nekazaritzako elikagaien ekoizle txikiak babesteari eta haiek kooperatzeari, lehen baino are eta indar handiagoz. Tokian tokiko produktuak kontsumitzeko ordua da, berreskuratu eta mantendu egin behar dira bai kontsumoa, bai lanpostuak eta bai ekonomia. Hurbileko produktuak leku nabarmena irabazi du gure apaletan, eta, salmenten bolumena igo izanak erakusten duen bezala, gure bezeroek ere horrelako produktu jasangarriagoak, freskoagoak, sanoagoak eta kalitatezkoagoak hautatzen dituzte", esan du EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak, Asun Bastidak.

EROSKIek ekimen mordo bat bultzatzen du Nafarroan lehen sektorean, hasi tokian tokiko elikagaien ekoizpenetik eta segi marka propioko arrautzetan, barazki kontserbetan, Idiazabal Gaztan eta Erronkari Gaztan. Bestalde, EROSKI Natur

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA**CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)

marka propioarekin Nafarroako Zainzuriak eta Tuterako Orburuak saltzen ditu, besteren artean.

Gainera, lanean ari da Teknologia eta Azpiegitura Agroalimentarioetako Nafarroako Institutuarekin (INTIA), bertako produktuak Reyno Gourmet markarekin sustatzeko; marka horren 450 erreferentzia merkaturatzen ditu. Era berean, [Nafarroako Kluster Agroalimentarioan](#) parte hartzen du; kolektibo bat da, sektore askotako korporazioekin osatua, eta horren helburua da Nafarroan nekazaritzako elikagaigintzan dihardutenak lerrokatzea Europako berritasun eta jasangarritasun politikekin.

EROSKIren politika komertzialak ahal den gehiena indartzen ditu tokiko ekonomiak, ingurunean aberastasuna sortzeko eta nekazaritzako elikagaiak, gizartea eta ekonomia garatzen laguntzeko. EROSKIk Espainian dituen 4.200 hornitzaile komertzialen erdiak baino gehiago tokian tokiko enpresa ekoizle txikiak dira. Eredu horrek oso dibertsifikatuta dagoen tokiko nekazaritza-ehuna bultzatzen du, zeina giltzarria baita sektorearen jasangarritasunerako.

Lehen sektoreari laguntza pandemia honetan

COVID-19aren krisiak ixtera behartu ditu ostatu eta jatetxeak, eta jakina da nekazari eta abeltzainek hor saltzen dutela beren ekoizpenaren zati handi bat. Hori ikusita, EROSKIk modu proaktiboan ekin zion lehen sektorearekin lankidetzara sistema bat ezartzeari, tokiko produktuei irtenbidea eman nahian.

Nafarroan, EROSKIk ekintzak koordinatu izan ditu Intiarekin (Teknologia eta Azpiegitura Agroalimentarioetako Nafarroako Institutua) eta nekazaritzako elikagai industriaren klusterrarekin, "etxean jan dezagun" kanpaina garatzeko eta eskualdean ekoizten diren behi haragi, gazta, hestebete, txistor eta kontserben (piper eta esparrago) kontsumoa sustatzeko. Horrekin batean, hitzarmena egin du UAGNekin (Nafarroako Nekazari eta Abeltzainen Batasuna), bere dendetan tokian tokiko produktuei irtenbidea emateko: zainzuriak, orburuak, piperrak, txahal haragia, arkumea, gaztak, ardoak...

Janari banatzaileetan lehena Nafarroan

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Nafarroako elikagaien banaketan. EROSKIk eskualdeko 3.200 produktu inguru merkaturatzen ditu, eta hemengo 400 hornitzaile ingururekin dihardu, haiei 220 milioi euroren erosketak eginez urtero.

112 saltoki ditu guztira foru erkidegoan, hala nola supermerkatuak, hipermerkatua, cash & carryak, gasolindegia, optikak, bidaia bulegoak eta kirol ekipamendurako dendak, eta [on line](#) supermerkatua, zeina bakarra baita erosketak Nafarroa osoko

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

EROSKI – PRENTSA BULEGOA CONSEJEROS DEL NORTE

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)



edozein etxetara eramaten dituen. EROSKI Clubak 209.000 bezero-bazkide baino gehiago ditu Nafarroan.

EROSKI

Komunikazio Korporatiboko zuzendaria
KRISTIAN PRIETO

Tel: 946 211 214

comunicacion@eroski.es

**EROSKI – PRENTSA BULEGOA
CONSEJEROS DEL NORTE**

JOANA G. LANDAZABAL
EDURNE IZQUIERDO

Tel: 944 158 642

[Online prentsa aretoa](#)